



KULTUR EGITARAU OPAROA AUKERAN

Abuztuko atsedenaldia igaro ostean, askotariko kultur ekintzak ez dira faltako Tolosan irailean zehar 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-09-04

VIURTEA 1.499.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Irurako Ikastolako Josune Aiestaran zuzendaria eta Sorkunde Irazu lehendakaria, eraikin berrian, atzo. I. GARCIA

INAUGURAZIOAREN ZAIN, ERAIKIN BERRIA ERABILTZEKO PREST

IRURA Ekitaldia etzi izango den arren, bihar zabalduko ditu ateak ikasturteari hasiera emateko; arduradunak «ilusioz beterik» daude 3



A. IMAZ

MIGEL ANGEL SUKUNTZA TXINGA-EROATE TXAPELDUNA

«17 plaza eginda behatz lodia askatuz gero, ezin da lau behatzekin eutsi»

LEITZA Arauzin jokatu berri den Euskal Herriko txinga-eroate Txapelketa irabazi du 7


AHTren aurkako Gazte Egunean parte hartzeko deia

ZIZURKIL Larunbaterako antolatu dute, bazkaria, manifestazioa, kontzertuak eta jokoekin 6

argazki lehiaketa

h

bidali
opor
hauekako
argazkiak!



Sari
nagusia



Amorotoko
Altuena
landetxean,
bi pertsonentzako
bi gauerako
egonaldia.

2. saria



Tolosako
Beti Alai jatetxean,
bi pertsonentzako
bazkari edo afaria.

3. saria



Ibarrako
Azoka dendarak
eskainitako
saski berezia.

NORA BIDALI

tolosaldean@tolosaldekohitza.info



HITZA aste santuko argazki lehiaketa

OINARRIAK: www.tolosaldekohitza.info webgunean

LIZARRIBAR OINETAKOAK

OSTEGUNA, OSTIRALA ETA LARUNBATA

%10, %20 eta %30eko BEHERAPENA!

1946tik

Arostegieta kalea z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 04 38

Abuztuko atsedenaldiaren ostean kultur jardueraz blai dator iraila

Kultura » Kontzertuak, jaia, musika, zinema eta Garagardo Festa izango dira, besteak beste, hilabetearen zehar.

ERREDAKZIOA

Abuztuan jende askok bezala kultur ekintzek atsedendia hartu ohi dute, baina behin irailean sartuta, eta lanera ekin diogun moduan, artea, antzerkia, musika eta zinemaz gozatzeko aukera dugu.

Aranburu Jauregia

■ **Sukru Karakus.** Irailaren 12tik urriaren 9ra arte izango da ikusgai turkiararen pintura erakusketa.
■ **Jose Luis Urdapilleta.** Irailaren 26tik azaroaren 8ra izango da argazki erakusketa.

Kultur Etxea

■ **Odol ematea.** Hileroako odol ateratzea, hilaren 15ean, 18:00etan.
■ **Kultur tailerrak.** Matrikulazio epea, hilaren 15etik 26ra. Iazko ikasleek 15etik 19ra eta berriek 22tik 26ra.

Leidor aretoa

■ **'Siete Mesas de Billar Frances'.** Zine proiektzioa Kutxako urrezko zerbitzuak antolatuta, hilaren 12an, 17:00etan.
■ **'Nancy McPhee'.** Donostiako Zinemaldia. Ikasleentzat euskaraz, hilaren 19an, 10:00etan.
■ **'Ezker eskuma'.** Antzerkia, hilaren 19an, 20:30ean.
■ **'Bermengo musikariak'.** Haurtzentzat antzerkia, hilaren 20an, 17:00etan.
■ **Gero Axular dantza taldea.** Aspanovas elkarteak antolatuta, hilaren 29an, 17:00etan.

Zinema:

■ **Sexo en Nueva York** (etzi, larunbatean eta igandean).
■ **Wall-E / Batallon de limpieza** (larunbatean eta igandean).
■ **El caballero oscuro** (larunbatean, igandean eta astelehenean).
■ **Sexo en Nueva York** (etzi, larunbatean eta igandean).
■ **Escondidos en Brujas** (hilaren 12an, 13an, 14an, eta 15ean).
■ **Las crónicas de Namia 2** (hilaren 13an eta 14an).
■ **La momia 3** (hilaren 13an eta 14an).
■ **Antes que el diablo sepa que has**

muerto (hilaren 20an, 21ean eta 22an).

■ **Mamma mia** (hilaren 20an eta 21ean).
■ **Kung-Fu Panda** (hilaren 21ean).
■ **Che el argentino** (hilaren 26an, 27an, 28an eta 29an).
■ **Ahatetxo itsusia eta ni** (hilaren 28an).
Zine Foruma (ostegunero, 19:15ean eta 21:45ean):
■ **Tropa de elite** (gaur).
■ **La duquesa de Langeais** (hilaren 11n).
■ **West side story** (hilaren 18an).
■ **Yo** (hilaren 25ean).

Besterik

■ **Manent.** Gau Giro saioa, Plaza Berrian, bihar, 22:30ean.
■ **Izaskun eta Bedaio auzoko jaia.** Bihartik igandera arte.
■ **Bonberenea Sutan.** Naiz Roxa, Kerobia, Zea Mays, Sorkun eta Vice Presidents, Anestesia, Borrakan, Iñoren Ero Ni, Lisabo, Deabruak Teilatuetan, Delorean eta Makala DJ hilaren 12an eta 13an.
■ **Alde Zaharreko Festa.** Hilaren 13an.
■ **Tolosako III. Erraldoien Bilkura.** Hilaren 13an.

■ **Luma-Gorri baserriko oilaskoen jaia.** Hilaren 13an. Oilasko dastaketa, oilasko pintxoak, oilasko hazkuntza prozesuaren erakusketa...

■ **Disko Festa.** Beotibar pilotalekua, hilaren 13an, 22:30etik 05:00etara.
■ **Folk kontzertua.** La Jara Extremadurako elkarteak antolatuta, Aulaga Folk Extremadurako taldea, hilaren 14an, Triangulon, 18:00etan.
■ **Euskara ikastaroak etorkinentzat.** Ereite elkarteak antolatuta, larunbatero, Kultur Etxean, 10:00etan, hilaren 15etik aurrera.
■ **X. Garagardo Festa.** Kirol taldeek eta Udalak antolatuta, Zerkausian, hilaren 18tik 21era.
■ **Tolosako Musika Banda.** Garagardo Festaren baitan ariko da, hilaren 18an, Zerkausian, 20:00etan.
■ **Mugikortasunaren Astea.** Udal Ingurugiro Sailak antolatuta, hilaren 22tik 28ra.
■ **Karma Quintet.** Kutxa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin, hilaren 26an, kontzertua Fronton kafetegian, 23:00etan.
■ **Angel Unzu.** Aranburu Jauregian ariko da, hilaren 27an.

Hainbat berrikuntzekin dator Leidor aretoko zine egitaraua

ERREDAKZIOA

Berrikuntzekin dator zine egitaraua irailetik aurrera, izan ere, Udaleko kultur sailetik azaldubezala, «azken ikasturtean, Tolosako Zine Klub taldeari esker, martxan jarri ditugun ekimenen ondorioz, herritarrek gustura hartu dute filmen egitaraua indartzea, eta ildo horretatik doa irailetik aurrerako plangintza».

Hala, asteburueroko Zine Forumeko film bat, zine komertzialeko 2 eta gaztetxoentzako film bat izango da, eta «aukera dagoenetan, nahiz eta eskaintza oso mugatua izan, filmak euskaraz ere bai». Bestalde, Gazte txartela edota Urrezko txartelarekin, sarerra arunta 4 euro, eta zine forum saioa 2 euro ordaindu beharko da. Gainera, aukera izango da hilabeteroko bonua erosteko; irailean, esaterako, bi motatakoak izango dira, edozein saiotarako balioko dutenak (12 euro) eta arratsaldeko edota gaueko saioetarako (8 euro). Hauek gaur jarriko dira salgai Leidorreko leihatilan, goizez eta arratsaldean.

Gau Giro saioekin amaitzeko Manent zuzenean

Musika » Bihar eskainiko dute kontzertua, Plaza Berrian, 22:30etik aurrera; 'Txuribeltzeko amodia' diskoa aurkeztuko dute.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko kultura sailak antolatuta udako gauean musika kontzertuez gozatzeko aukera izan da herriko txoko desberdinetan. Hala, bihar izango da Gau Giro ekimeneko azken saioa, eta egitaraua itxeko ardura Manent talde tolosarrak izango du. Plaza Berrian izango da biharko saioa, 22:30etik aurrera. Kasu honetan, Iratxo, Eguzki eta K2 taberna dira laguntzaileak.



Manent talde tolosarraren kideak. HITZA

Bost tolosarrek osatutako musika talde honek bere lehen diskoa kaleratu du aurten Karl Watermarken laguntzarekin, eta «zere-san handia» sortzeko asmoz datoz. *Txuribeltzeko amodia* (Run Down Entertainment, 2008) izeneko lanean maitasunaren inguruan mintzatzen diren hainbat kantu bildu dituzte. Taldea ondorengo hauek osatzen dute: Denis Ruiz (ahotsa eta gitarra akustikoa), Tadeo Urkola (teklatuak), Iñigo (Iñaki) Agirre (gitarra akustikoa eta elektrikoa), Juanjo Falcon (baxu elektrikoa) eta Fermin Exeberria (bateria).

Country musika egiten hasi zen Denis, baina pixkanaka taldeak pop komertzialera jo zuen, euskaraz eta gaztelaniazko abestiekin.

berria bekak 2008

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: 8 beka, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: beka bat

Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietean

Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08
Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragarri

Lan eskaintza

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak **DINAMIZATZAILA** behar du **GIPUZKOAKO** herrietan 'Euskaraz Bai' dinamika kudeatzeko. Egitasmo horren helburua da euskararen normalizazioa eragitea hurre mailako enpresa, saltegi, elkarte eta era guztietao entitateetan.

Eskaintzen da: lanerako trebakuntza, egun erdiko dedikazioa (gehitzeko aukerarekin), lan-taldean aritzea eta lanean berehala hasia. Lantokia Andoainen izango du.

Zereginak: herrietan euskalgintzako lan-taldeak dinamizatzea, laguntza eta aholkularitza eskaintzea, herrietako eragileekin egitasmoa azaltzeko harremanak izatea...

Eskatzen da: lan-taldeak dinamizatzen eskarmentua izatea, harreman- eta antolakuntza-gaitasuna, euskalgintza ezagutzea, gida baimena eta autoa izatea.

Bidal ezazu curriculuma zigor@kontseilua.org, edo Kontseilua, Martin Ugalde Kultur Parkea z/g, 20140 Andoain. **EPEA: IRAILAK 15.**

Zehaztasun gehiago eskuratzeko, deitu **943 303 551** telefono zenbakira, eta Zigorrengandik galdetu.



Irurako Ikastolako Sorkunde Irazu lehendakaria eta Josune Aiestaran zuzendaria, eraikin berriaren aurrean. I. GARCIA

Eraikina erabiltzeko ordua iritsi da

Irura » Etzi egingo dute Ikastolaren eraikin berriaren inaugurazioa; bihar dagoeneko ikasturtea hasiko dute bertan.

IMANOL GARCIA

Irurako Ikastolaren eraikin berria etzi inauguratuko dute. Halere, bihar dagoeneko ateak irekiko dituzte ikasleentzat, ikasturte berezi honi hasiera emanez. «Gauza garrantzitsua da eraikina eta inaugurazioa egitea egoki ikusi dugu», azaldu du Josune Aiestaran Ikastolako zuzendariak.

Inaugurazioa etzi goizean izango da. 12:00etan hasiko da ekitaldia, Irurako dantzarien agurrarekin. Ondoren grabazio bat ikusteko aukera izango da. Sorkunde Irazu Ikastolako lehendakariak hartuko du hitza jarraian, eta gero ikasle ohiek bibolina joko dute. Ondoren, Marimi Ugalde Irurako alkatearen txanda izango da eta jarraian Ikastolaren Konfederazioko

kide batek hitz egingo du. Ekitaldia amaitzeko bibolin-joleek beste saio bat egingo dute eta ondoren eraikin berriaren ateak zabalduko dituzte bertaratuko diren guztientzat. Azkenik, herriko frontoian hamaiketako egingo dute.

Herriari zabaldua

Jende ugari gonbidatu dute Ikastolakoek. Bai eskualdeko beste ikastolakoak, bai Irura, Anoeta eta Tolosako Udaleko ordezkariek, Irurako Ikastolasortu zutenei eta lehen promozioan izan zirenak, Ikastolari laguntzeko beti prest agertu direnei, Partaideko, Hezkuntza Saileko eta Ikastolen Elkarteak kideei eta baita, noski, Kilometroetako antolakuntza jarduten dutenei.

Gonbidatu guzti horiez gain ere Josune Aiestaranek eta Sorkunde Irazuk nabarmen zuten Irurako herritar guztiei zabalitzen zaiela gonbitea. Aiestaranek gaineratzen duenez, «eraikin berriaren areto nagusia herriko areto handiena izango da eta herriari etekin handia

atera behar dio horri». Aretoak bere kanpoko sarrera independentea du.

Eraikinari berari dagokionez, azkeneko ikutuak falta dira, dena behar bezalagoteko eta egunotan ari dira horiek lotzen. Hezkuntza

Inaugurazio ekitaldiaren bukaeran bertaratzen direnek eraikina ikusteko aukera izango dute

Hilabete besterik ez da falta Kilometroak 2008 ekitaldi nagusirako eta prestaketak aurrera doaz

sailak dagoeneko eman du baime-na eraikina erabili ahal izateko. Ikastolaren ametsa, beraz, biharkik aurrera hasiko da betetzen, eraikin berria erabiltzen hasten direnean.

«Oso ilusionatuta gaude eraikin berriarekin», zehaztu dute Aiestaranek eta Irazuk. «Oso harro gaude lan handia egin dugulako eta

ikasturte berria eraikin berriaren hasiko dugulako». Eraikin berriaren Lehen Hezkuntzako ikasleak ariko dira. Ikasleak ere ilusionatuta daude eta eskolako materiala eramatean lagundu zuten.

Egindakoak emaitzak ematen

Eraikin berria ordaintzen lagunduko dien egitasmoa da aurtengo Kilometroak. Hilabete besterik ez da falta egun handirako eta horretarako prestaketak ere aurrera doaz. Sorkunde Irazuk azaltzen duenez, «urte osoan egin dugun lanak emaitza ematen ari dira orain». Azken urtean zehar hainbat ekitaldi egin dituztela eta guztiak «oso ondo atera» direla zehaztu dute. Bereziki rallya aipatu dute, «Kilometroak txiki bat bezalakoa izan zen eta dena ondo atera zen».

Hori bai, boluntario bila jarraitzen dute urriaren 5eko ekitaldi erraldoiarentzako. Lagundu nahi duenak deitu dezake 636 724 827 edo 676 44 80 66 zenbakietara edo idatzi kmk.gizabaliabideak@ikas-tola.net helbidera.

Oñatira aldatzen dutela eta, omenaldia Larrañaga apaizari

ERREDAKZIOA

Azken urte hauetan Villabonako Jesusen Bihotza Parrokiko erreto-rea izan den Joxean Larrañaga apaiza hil honen amaieran Oñatiko parrokira aldatuko dute. Larrañagak «eskainitako zerbitzu guztien esker onez», bere agurra izango den hilaren 21erako, 12:30eko meza nagusiaren ondoren, Jesusen Bihotza parrokiak, omenaldi gisa, bazkaria antolatu du. Olentzo jatetxean, 14:15ean izango da. 13:30etatik aurrera, eliz ondoko autobus geltokitik, jatetxera joateko autobus zerbitzua egongo da.

Omenaldian parte hartu nahi dutenentzat, txartelak parrokiko bulegoan egongo dirasalgai, 35 euroren truke, gaur eta bihar, 18:00etatik 20:00etara, eta etzi, 13:30etik 14:00etara.

Ikasturte berriari ekin diote Anoetako Abraham Olano kiroldegian

ERREDAKZIOA

Abuztuan itxita egon ondoren, astelehenean ireki ditu ateak Anoetako Abraham Olano kiroldegiak. Jadanik prest dago 2008-2009 ikasturterako ikastaro eskaintza. Aurreko urteetan eskaini direnez gain, berriak ere martxan jarri nahi dituzte, dantza anitzak edo defentsa pertsonala hamasei urtetik gorakoentzat, eta haurrentzat tenisa, adibidez.

Pilateseko talde gehiago ere eskainiko dituzte, hastapenekoak zein jarraipenekoak; eta baita cyclingkoak ere. Aerobika, 3. adinekoentzako gimnastika, yoga, multifitnes, gimnastika erritmikoko ikastaroak ere egongo dira. Izen ematea gaur irekiko da.



ALKIZAKO UDALA

FESTAK ONDO IGAROTZEA
OPA DIZUE HERRIKO GUZTIEI
ETA ETORRIKO ZARETENEI

Festa Batzordea

San Martin enparantza z/g • 20494 ALKIZA • Tel.: 943 69 02 35

Dantza taldeko saria Zizurkilera joan da aurten

ALEGIA • Alegiako dantza taldeak zozketa bat egin zuen udaran, eta dagoeneko zortea izan duena badakite nor izan den, eta baita hari saria eman ere. Maitane Garmendia zizurkildarra izan da saritua, eta astebukaera nekazal etxe batean eta 300 euro eskuratu ditu. Kasu honetan gurasoen komisioko ordezkaria den Nati Muruak eman zion saria zizurkildarrari. Alegiako dantzarien partetik, «zorianik beroenak». HITZA



Ez dute ur kontsorzioarekin hitzarmena sinatuko

Amezketak • Hitzarmenaren aldeko hiru eta kontrako lau bozka izan ziren azkeneko ohiko bilkuran.

ERREDAKZIOA

Amezketan dagoeneko duela hila-bete bat egin zuten azken ohiko bilkura eta bertan, esaterako, ez dute Gipuzkoako ur kontsorzioarekin hitzarmena sinatu, hitzarmenaren aldeko 3 bozka eta kontrako laurekin.

Alkateak gogoratu zuen hitzarmen honetan honako baldintzak kontuan hartu beharko zirela: hitzarmenak gaur egun Udalak ko-bratzen duen sarea bakarrik izango du kontuan; hitzarmena mantentzen den bitartean ura Zazpi-Iturririk hartuko da; Gipuzkoako Urak erakundeak ondorengo 3 urteetan kaleko uraren sarea berritzeko konpromisoa hartzen du (150.000 euro); inbertsio guztiak Udalak onartu beharko ditu; hitzarmenak 3 urteko iraupena izango du gutxienez.

Zinegotzietako batek aipatu zuen ur sarea konpondu beharra dagoela, «baina hitzarmenik sinatu gabe». Alkateak galdetzen du Agenda 21eko proposamenetako

bat ur sarea hobetzea zela eta hori gauzatzeko biderik egokiena dela Ur Kontsorzioarekin hitzarmena sinatzea. Zinegotzietako batek

Hil honen baitan eguzki panelen inguruko lege bat aterako dute eta horren zain daude orain

erantzun zuen «gai hau lantzen ari direla eta oraindik emaitzarik ezin dutela eman».

Bestalde, arau berriztatzaileen aldaketa txikiak eta hauen adjudikatzea Gaizka Perosterena arki-

tektoa eta Jon Orue-Etxebarria abokatuari ematea erabaki dute, 18.000 eurotan. Lan hauek finantzatzeko laguntzak eskatzeko deialdia argitaratu da eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Sailari eskatu zaio diru laguntza hori.

Larraizko bideko Egikaritze Unitateko urbanizazio proiektuari haserako onarpenera eman zaio. Lan hauek Amezlanek egingo ditu. 2008ko Amezketako eta Ugarteko festetarako eta Kultur Astarako diru laguntzak ere onartu dituzte. Jexus Iñurritak alkateak adierazi zuen «aurtengo festak eta Kultur

Laburrak

Guraso elkartearen zozketan, 2.540 da saritua

AMEZKETA • Urtero bezala, Amezketako Guraso Elkarteak aurten ere festetan txekor bat zozkatu du. Aurtengo zenbaki saritua 2.540 izan da, eta txartel hori erosi zuena Jabier Gofii amezketarra izan zen. Guraso elkarteak eskerrak eman nahi izan die laguntza eman dieten guztiei, erostunei, hain zuzen. Aldi berean, guraso elkartearen partetik, zorionak eman nahi izan diote Jabier Gofiri, aurtengo txekor irabazleari. Urte asko daramatzate zozketa hau egiten.

Hilaren 9an, klaseen hasiera Aralar institutuak

ALEGIA • Ikasturte berriari aurki helduko diote adin desberdinetako ikasleek. 2008-2009 ikasturteari begira, beraz, Alegiako Aralar Bigarren Hezkuntzako Institutuak honako deialdia luzatu du: bertako lehen eskola eguna hilaren 9an izango dela, datorren aste-asteazte, erostunei, hain zuzen. Goizean ariko dira bakarrik, bi orduz, 10:00etatik 12:00ak arte. Bertan zehaztuko dituzte hasiko duten ikasturte berriko egutegia nahiz xehetasunak ematen.

Astea antolatzeko diru laguntza kopuruak erabaki behar» direla eta batzordean proposaturikoari jarraituz, Amezketako jaiak eta Kultur Astea antolatzeko 36.000 euro emango dira eta Ugarteko jaietarako, berriz, 5.250.

Eguzki panelak, oraindik ez EBEk eta Amezketako Udalak eguzki panelak jartzeko instalakuntzak erabiltzeko zesio-laguntza hitzarmenaz aritu ziren ere. Hitzarmenaren ondorioz, egindako ikerketen arabera, Udalak elektrozitate-indarra aurrezteko eta energia berriztagarriak sortzeko bide hauek aholkatzen ditu: argiteri publikoan luminariak aldatzea eta eguzki panelak jartzea plazako frontoiaren sabaian (5 KWkoa).

Bi zinegotzik erakutsitako zantzen ondorioz, gaia aurrerago hartuko dute berriz, erabaki finko-

rik hartu gabe, beste arrazoiengatik, hil honen baitan, eguzki panelen mantenimendua, funtzionamendua eta halako puntuak jorratzen dituen legeren bat atera behar baita. Legeak dioena kontuan izanik eguzki panelek zer eta nola egin argiago izango da.

Aipatutako hitzarmen horren xedea hau da; Larrunarri frontoian beharrezkoa den azalaren erabilera lagatzea EEE/EVERi dohainik, sare elektrikora konektatutako eguzki planta fotoboltaikoa ipintzeko.

Hirigintzako informazio bilera

Hirigintza batzordeak beste gai askoren artean, Amezketako arau berriztatzaileez aritu ziren, zehazki, etxebizitzaren behako solairuez. Amezketan, baju komertzialak etxebizitzaren bihurtzea eremu batzuetan bakarrik da posible. Kimu Berri taldeak honen inguruan aldaketa puntuala egitea proposatu zuen: baju komertzialak herri guztian etxebizitzaren bihurtu ahal izatea, herriko plazan ezik.

Beraz, aldaketa egitea adostu zen, baina honekin batera beste puntu hauek ere adostu ziren: herri guztiko behako solairuetan, herriko plazan izan ezik, etxebizitzak egokitu ahal izatea, beti ere etxebizitzak sortzeko aparkaleku arazoa sortzen ez bada. Ezingo da lehen garajea zena etxebizitzaren bihurtu, garaje plazarik mantendu edo sortu gabe. Bigarrenik, teiltuazpie-tan ere etxebizitzak egokitu ahal izango dira herri guztian.



Larraitz Bideko etxebizitzaren urbanizazioa Amezlan enpresak egingo du. Irudian, Larraitz bideko eremua ia, z. n. u.

Hilberria

XABIER PORTUGAL



Gure albotik joan zara baina zuk egindako lan bikaina gurekin geldituko da.



OARSOALDEAN
2008eko irailaren
4an

OARSOALDEAKO LANKIDEAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Irailean eta urrian zeharreko ikastaroak, hilaren 15etik aurrera

Tolosa » Informatika eta sortze-literatur tailerra egiteko aukera dago Tolosaldean Ikastn zerbitzuaren eskutik.

ERREDAKZIOA

Tolosaldean Ikastn zerbitzuak ikastaro berriak abiaraziko ditu datozen hilabeteetan. Oinarrizko informatika ikastaroa eta sortze-literaturari buruzko tailerra dira lehen biak. Oinarrizko informatika ikastaroa da hilaren 15ean hasiko dena (astelehena) eta urriaren 16ra arte iraungo duena (osteguna). Astelehenetik ostegunera bitarteko izango da ikastaro hau, 18:00etatik 20:00etara: hortaz, guztira 40 orduz ariko dira ikasleak.

Ikastaro honetan izena emateko bideak hauek dira: 615 77 56 78 telefono zenbakira deituz (Gemma Zelaia), info@ikastn.com

helbidera zuzenduta, edo www.ikastn.com webgunearen bidez. Edozeinek eman dezake izena informatikako ikastaroan, baina bereziki informatika munduan inongo ezagutzarik edota ezagutza eskasak dituztenentzat da egokia (Windows, Word, Internet eta helbide elektronikoaren kudeaketaz jorratuko dituzte).

Dohainekoa da, Tolosaldeko Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzuak diruz lagunduta, hain zuzen. Gaztelaraz izango da.

Sortze-literaturari buruzkoa urrian hasiko da

Sortze-literaturari buruzko tailerra urriaren 6an hasiko da. Dena dela, bai informatikari buruzko eta baita sortze-literaturari buruzko ikastaroei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, www.ikastn.com-en dago eskuragarri.



Informatika ikastaroa oinarrizkoa izango da, hilaren 15ean hasita. M.S.

Laburrak

Udaberri dantza taldeko zerrendak webgunean

TOLOSA » Udaberri dantza taldearen haurrentzako ikastaroetako zerrendak irekita daude. Lokal berriko atean ikusgai egoteaz gain, haien webgunean ere daude, hau da: www.udaberri.com-en. Gogoratu ere, entseguak hilaren 12an hasiko direla, ostiralez, hain zuzen ere.

Igandean 'Ingurutxo' dantzatuko dute

BEDAIO » Bedaioko festen baitan, han bakarrik dantzatzen den *Ingurutxo* ikusteko aukera izango da datorren igandean. Aurten 14 bikotek hartuko dute parte dantzan. Horretarako dantzariak entsegatu egin dute, igande arratsaldean jendaurrean frontoian dantzatzeko. Bedaioko jaia bihar 20:00etan hasiko dira.

Kutxaren Korreo kaleko bulegoa itxita egongo da

TOLOSA » Kutxaren Korreo kaleko bulegoa itxita dagoela jakitera eman dute. Itxita egongo da datozen egunetan berritzeko lanak ariko baitira egiten. Horregatik, lehialako eragiketak egiteko Rondilla kaleko Kutxara joan behar da, eta gainerakoak, aldiiz, San Frantzisko etorbidean edota Gorriti kalekoan.

Samaniegoko ikasleak astelehenean hasiko dira

TOLOSA » Tolosako Samaniego herri ikastetxean 2008-2009 ikasturteari hilaren 8an helduko diote, hau da, datorren astelehenean. Goizeko ordutegiarekin hasiko dira ikasle eta irakasleak, 09:00etatik 13:00etara, hain zuzen. Autobusak ere izango dira, eta ohiko ibilbidea egingo dute.

Datorren astean irekiko dute Kondeko Aldapa autoentzat

Azpiegiturak » Euskal Uraren Agentziak esan duenez 800 milimetrotako hodia jarri dute Kondeko Aldapan.

ERREDAKZIOA

Ura Euskal Uraren Agentziak jakitera eman duenez, Tolosako Kondeko Aldapako zirkulazioa datorren astean irekiko dute. Zonalde honetan trafikoa etenda egon da abuztuaren zehar, bertan 800 milimetroko hodia jartzen aritu direlako. Hodi honek, Zumardi Handian jarriko duten Ibarakoekin elkartzendean, San Blas auzoko eta Kondeko Aldapako etxebi-

zitza guztien hondakin-ura jasoko du.

Urak Benta Haundiko eta Araba etorbideko hodi biltzailearen bideratze lanak hil honetan amaituko dituztela ere esan du. Era berean, Ori aibaiko ezkerreko ibilguaren zaharberritze lanak ere datozen astean egingo dituztela esan du, horretarako Alegiko ibilgu berritzatzeko izan zituzten ingurugiro-irizpideak jarraituko dituztelarik.

Araba etorbidea

Egun hauetan Araba etorbidean lanean ari den makina berezia 1.200 milimetroko hodia sartu ahal izateko tunela ari da egiten. Euskal Uraren Agentziak argitu

duenez, orain arte 75 metroko hodia sartu dute dagoeneko tunelean, etorbideak igarotzen den zati-ko %45a, hain zuzen ere. Bestalde, Rekalde Almirante kaleko gainzabalearen obrak ere «erritmo onean» doazela esan du Ura agentziak.

Agentzia Pablo Gorosabel eta San Frantzisko kaleetako telefono, elektrizitate eta bestelako zerbitzuen desbideratzea ere ari da egiten, baina ez du trafikoa guztiz itxiko. Horiek horrela, hilabete honetan, desbideratzea amaitu ondoren, Barrena kalearen ondoan joango den San Frantziskoko gainzabalea hasiko dira egiten, horretarako errepideko bide bakarra itxiz.

TESTULIBURUAK
adituen eskuetan ez dago ikasgai zailik

elkar

Testuliburu eta material osagarriekin dituzte

www.elkar.com

ARRASATE • BAYONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • HERNANI • IRUN • IZURPEA • TOLOSA



Anoetako plazan egin zuten larunbat honetako AHTren aurkako Gazte Egunaren aurkezpena. HITZA

AHTren aurkako Gazte Egunean parte hartzeko deia egin dute

Gazte Eguna » Hitzordua larunbatean da, Zizurkilen; bazkaria, manifestazioa, kontzertuak eta jokoak antolatatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Larunbat honetan, hilak 6, AHTren aurkako Gazte Eguna antolatu dute Zizurkilen. Tolosaldeko gazteriari luzatu diete antolatuak parte hartzeko deia, izan ere «gazteria omen gara etorkizuna, baina dena erabaki nahi dute, dena lotu», eta horri aurre egiteko xedearekin antolatu dute, hain justu, Gazte Eguna. «Geuk orain egin dugunaren arabera izango omen da etorkizuna. Baina egin nahi dugun guztia baldintzatu nahi digute, sistema kolokan ez jartzeko, klase zapalduak zapaldu-

rik jarraitzeko, herri honek zein frantziar Estatu inperialistaren asimilazioan bere nortasuna galtzeko», azaldu zuten Anoetan egingandako aurkezpenen.

«Etorkizuna baldintzatu du» AHTren proiektua «kapitalista eta txikitzaile nagusienetako» dela salatu zuten eta eskualdean «neurrigabeko eragina» izango duela eta gazteriaren etorkizuna «baldintzatu» duela. «Jada badakizkigu ingurugiroan izango dituen eraginak, obren kostuaz sektore publikoan denborarekin emango diren murrizketak, nekazaritzan izango dituen ondorio zuzenak... Badakigu ez digula onurarik ekarriko, badakigu gezurretan ari direla», gehitu zuten.

Era berean, EAJ egin zuten AHT bultzatzearen erantzule, izan ere «herri kontsultaz eta era-

bakitze eskubideaz hitz egiten» ari den arren «beraien interesen arabera proiektu txikitzaile eta kapitalista inposatu nahi digute eta ondoren espainiar Estatuaren aurrean erabakitze eskubidearen inguruko konfrontazio faltsu batekin iruzur berri bat aurrera atera, paktu ekonomiko-politiko berri bat egiteko». «Ezagutzen dugu EAJren aurpegi bikoitza, beti bere

» EGITARUA

- **14:00.** Bazkaria. Segidan sorpresa bat egongo da. (Txartelak Denak, Itzuli, Atari, Iskina, Aurrera eta Irlatzar tabernetan daude salgai)
- **17:30.** Jokoak.
- **19:30.** Eskualdeko manifestazioa.
- **23:00.** Kontzertuak; Arkada, Skatu eta Zulu. Tartean ekitaldia egongo da.

interesei eusten diena, gazteon etorkizuna bost axola zaiona, AHT bezalako proiektua oztipo guztien gainetik atera nahiko duena», gaineratu zuten.

Horiek horrela, aurretik egon diren era honetako proiektuak ekarri zituzten gogora: «Geure aurreko belaunaldiek Lemoiz geratu zuten, Leitazararen borrokatu ziren, Itoitzen erresistentzian egon ginen, eta oraingoa gazteoi AHT geldituko dugu! herri berri bat piztuko dugu!».

Momentuz Tolosako Sanblas-piko Gazte Asanbladaren eta Bonberenearen, Lizartzako Zezengorri Gaztetxearen, Berastegiko Gazte Elkartearen eta Anoeta Gazte Asanbladaren atxikimendua jaso dute Gazte Egunaren antolatzaileek, nahiz eta datozten egunetan beste elkarte zein talde batzuren jasotzea espero dute.

Casino Kursaal Torneorako material aukeraketa izango da gaur

Elduain » Gaur eguerdiko hamabietan aukeratu dute Torneorako materiala Galarreta pilotalekuan.

ERREDAKZIOA

Erremonteko Casino Kursaal Torneoko finalistek, Patxi Zeberio elduaindarrak eta Miguel Mari Urrutiak, alegia, gaur aukeratu dute larunbat honetan jokatu dute finalerako materiala. Hernaniko Galarreta frontoian egingo dute aukeraketa, 12:00tan.

Gogoratu behar da, era berean, Zeberio II.ak larunbateko partida irabazten badu elkarren segidako hirugarren txapela eramango duela etxera.

Gaztañondo jubilatuko elkarrekin Bilborako bidaia antolatu du

Berastegi » Irteera hilaren 16an izango da; Bilbo ezagutu eta gero bazkaria izango da Deustuko jatetxe batean.

ERREDAKZIOA

Berastegiko Gaztañondo jubilatuko elkarrekin txangoa antolatu du Bilbora. Hilaren 16rako antolatu dute irteera eta goizeko zortzietan aterako da herriko plazatik. Ondoren hamarretakoa egingo dute Begoñan. Zerbait jan eta gero Bilbo ezagutzeko aukera izango dute bertaratutakoek gida baten laguntzari esker. Bazkaria Deustuko Casa Vasca jatetxean egingo dute. Hilaren 11 baino lehen eman behar da izena.

Era berean, eta aurreko urteetan bezala, yoga eta eskulan tailerrak ere antolatu dituzte. Hilaren 12an amaitzen da izena emateko epea.

DONOSTIAKO komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), eragileekin izan beharreko harremanen kargua hartuko duen pertsona baten bila gabilta.

Eskatzen da:

- Kudeaketa-administrazio arloa ezagutzea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualde ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona izatea.
- Izaera dinamiko, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, curriculum bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, irailaren 10a baino lehen; JARDUNA S.M. - Giza Baliabideak saila
Martin Ugaldie Kultur Parkea - 20140 - Andoain


Iragarki laburrak

LANA

■ **Irakaslea.** Lazkaoko Ingeleseko Akademiarako irakaslea behar da. Bidali Curriculum Vitaea helbide honetara: hizkuntzaeskola@gmail.com.

LANA

■ **Zaintzailea.** Tolosan arratsaldean bi ume zaintzeko pertsona bat behar da. 630 984 300.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

MIGEL ANGEL SUKUNZA › Euskal Herriko txinga-eroate txapelduna

Leitza › Aresorekin sokatiran bederatzirte aritu ondoren iragan urtean txingekin proba egin zuen Sukunzak. Hasierak hasiera gaur Euskal Herriko txapelduna da.

ASIER IMAZ

Arauzin (Nafarroa) jokatu zen iragan igandean Euskal Herriko txinga-eroate txapelketa. Emakumezkoetan NARBARTKO (Nafarroa) Esther Iriarte izan zen irabazlea. Gizonezkoetan Miguel Angel Sukunza (Leitza, 1970) nagusitu zen; 50 kiloko txingak esku banatan zituela 20 plaza eta 4,44 metro egin zituelarik.

Nondik eta nola iritsi zinen txingemundura?

Lehenago urtean hasi nintzen txingekin. Lehenago Aresorekin sokatiran aritu nintzen, bederatzirte inguru. Sokatiran ikaragarri gustura ibiltzen nintzen baina denbora asko behar da horretarako. Lanetik etortzean entrenatze- eta horrek sakrifizio handia eskatzen du. 2007. urtea gorabeheratsua izan zen niretzat; bizitzak kolpe batzuk eman zizkidan eta sokatira uztea erabaki nuen. Gero Xabier Arraras-en bitartez txingekin hasi nintzen. Deus ezagutu eta entrenatu gabe Iruñeara joan nintzen Nafarroako Txapelketa jokatzera: 16 plaza egin nituen. Hori bai, izugarriko iskanbila izan zen ondoren; erretxina erabili zela ez zela erabili. Azkenean lautik hiru deskalifikatu egin gintuzten. Xabier honek esan zidan: «zer egin dok? Deskalifikatu egin haute. Erretxina eman dok...». Nik magnesioa bakarrik eman nuen eta eskuak erakutsi nituen, han ez zegoen ezer. Beste batzuk aitortu zuten eman zutela baina nik zer eman behar nuen, hemendik hara joan txapelketara, gainera gaueko lana nuen, lo pixka bat eginda joan nintzen Iruñeara.

Hala eta guztiz ere aurrera jarraitu zenuen.

Handik 15 egunerera Lizarran (Nafarroa) erakustaldia zegoen eta Nafarroako Federakuntzako Presidentea etorri zitzaidan, ea joaterik banuen esanaz. Hanka sartu zuela nirekin, barkatzeko eta jarraitzera animatu ninduen.

Lehenago urtean Euskal Herrikoan ez zinen lehiatu.

Nafarroakoa jokatu eta gero, aste-buru barean Euskal Herrikoa eta Zazpi Probintzien txapelketak zeuden. Biak ezin nituen egin eta Zazpi Probintzietakora joan nintzen Nafarroa ordezkatzu. Hori igandean zen, eta larunbatean ta-loak egiten aritu nintzen egun guztian Otsagabian (Nafarroa). Pasatuta joan nintzen eta 14 plaza t'erdia inguru egin nituen. Gutxi egin



ASIER IMAZ

«Gorputzez oso ongi zaude baina: plasta! esku biak lurrera»

nituen. Irabazi zuenak, iparraldekoak, bat gehiago egin zuen.

Aurten joan zara, eta ez hori bakarrik, indartsu irabazi duzu.

Lehenbiziko buelta eman bezain pronto nabaritu nuen ongi nenbela; sentsazio onak neuzkan.

Marka handia egin zenuen behintzat.

Bai, 20 plaza eta 4 metro. Txingek txapelketetan beti pisu bera izaten al dute?

Pisu gutxiagokoak badira baina txapelketetan beti berdina da pisua, esku bakoitzean 50 kilo.

Bigarrenago bi plazatarra utzi zenuen eta hirugarrena zazpi plazatarra.

Bigarrenago lehengo urtean txapeldun geratu zen. Hirugarrenagoak ere bi txapela badituela uste dut. 26 edo 27 plaza eginak ditu gainera baina lehengo modura, ez oraingo modalitate berri honetan.

Zein ezberdintasun dago orain-go eta lehengoaren artean?

Orain plazan bertan eskuak garbitu egiten dituzu epailearen aurrean. Hauek xaboiia, ura eta toaila ematen dizute; magnesioa federa-

zioak ematen du. Orain ez dago deus ezer egiteko aukerarik. Lehen eskuak erakutsi bakarrik egiten ziren hasterakoan eta bukatzerakoan.

Herri kirol hau lasaitasunez hartzen duzula dirudi.

Bai, bai. Aurten hori bai, lehengo urtean baino pixka bat gehiago prestatu naiz. Eta orain horrela segitu nahi dut; irailaren 13an, Donostian, Zazpi Probintzien arteko txapelketa dago. Nafarroa ordezkatzu txapela irabazteko asmoekin joan nahi dot.

Herrialde bakoitzetik ordezkari bakarra joango al da Donostiara.

Bai. Lehenago urtean Iparraldean denak, zazpiak, batera ateraginen. Aurrena bukatu nuen. (Barreak) Gero irabazleak plaza bat gehiago egin zuen.

Hori ere kontuan hartzeko izango da. Plazak azkar egin edo astiro baina txingak eskuan ongi helduta.

Eskuek nahikoa iraungo dizuten ziurtasuna edukiz gero, mantsoago ere tira egiten duzu. Bestela denbora gutxian ahalik eta metro gehien egiten saiatzen zara. Bi aukera daude; edo gehiago nekatzen zara eta ia eskuak eta hankek ez

«Lehenbiziko buelta eman bezain pronto nabaritu nuen ongi nenbela»

«17 plaza eginda behatz lodia askatzen bazaizu inork ez dauka potrorik lau behatzekin eusteko»

dute gehiago ematen, edo eskuak nekatzen zaizkizu 10 edo 12 plaza daramazkizunean. Gorputzez oso ongi zaude baina: plasta! esku biak lurrera. Tartekoa bilatu behar da.

Besoez gain eskuak prestatzen al dituzu entrenamenduetan?

Bai. Gero badago teknika bat: behatz lodia azpian sartzen duzu eta gero beste lauek eusten diote honi. Orduan, behatz lodia askatzen ez zaizun bitartean txinga ez zaizun erortzen. Hori bai, behatz potloriak dezente sufritzen du baina hau lehendabiziko 6 plaza egiten dituzunean ez duzu sentitu ere egiten.

Erortzeko une hori nolai izaten da?

Puntara iristen da. Behatz potlorik ihesi eta ihesi hasten da. Behin behatz lodia ihes egiten duenean plast erortzen da. 17 plaza eginda behatz lodia askatzen bazaizu inork ez dauka potrorik 50 kilori lau behatzekin eusteko.

Eskuinean edo ezkerrean joaten da txinga errazago.

Ni eskuina naiz baina ezkerreko behatz lodia eskuinarekin jartzen dut lehendabizi. Gero eskuina ezin duzu nahi bezala jarri. 20 plaza egin nituenean eskuinak alde egin zidan.

Donostian 20 eginez gero Zazpi Herrialdekoa irabaziko al duzu?

Bai. 20 eginez gero aisa.

Marka haustera zoaz orduan.

Ahal baldin badot bai. Denak batera aterako gara eta ez dugu jakiten bestek zer egiten duen. Bakoitzak berea egiten du.

20 plaza horiek al dituzu buruan?

Ailegatuko banintz! Lehengoan, Euskal Herriko Txapelketan, ni ere harriritu gelditu nintzen; hogeira nola ailegatu nintzen ikustean. Baina aurten bertan, Nafarroako Txapelketan 17 t'erdia egin nituen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizor: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil


Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



PIRINIOAK
Villabonako Joxe Mari Pirinotian izan da, eta hauxe kontatu digu argazkiarekin batera: «Aurten mendiz mendi ibili gara pirineotan eta egun honetan goran ikusten den Aneto mendia diena glaziarretatik urturiko urak daramatzen urjazia ikustera joan ginen. Urjazua honetatik urak lurrazpira sartzen dira eta kilometro batzuetako ibilbide izkutua egiten dute Aran bailaran berriro argia ikusten dute arte. Benetan toki paregabeak! Besarkada bero bat hemendik ere gurekin ez daudenei!».

JOXE MARI GALARRAGA



VIII. Hitza Argazki Lehiaketa martxan da

SENEGAL Urtero bezala, abuztuko oporraldia igaro bezain pronto martxan dugu VIII. Hitza Argazki Lehiaketa, eta dagoeneko jaso ditugu lehen argazkiak. Iban Salsamendi tolosarra Senegalen izan da, eta argazki hauxe aukeratu du parte hartzeko. «Bi anai biki hauek ederki ari ziren igarotzen urarekin jolasean Gore irlan Dakarren», dio. IBAN SALSAMENDI

A Agurrak



Urte askoan!

Gaur aitoren urtebetetze eguna, bihar lkerrena eta hilaren 11n Unaiena. Zorionak eta muxu handi bana.

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolargik eta Tolosagasa 2009 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian *Tolosa eta bere jaiak* gaiarekin. Argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek nahi adina argazki aurkeztu ahal izango dituzte Tolargiren eta Tolosagasaren bulegoetan.
■ **Villabona.** Joxan Larrañaga parrokoa agurtuko dute hilaren 21ean, 12:30ean meza Bihotz Sakratuaren parrokian eta 14:15ean bazkaria Olentzo jatetxean eginez. Izen-ematea, parrokiako bulegoetan hilaren 2an, 4an eta 5ean 18:00etatik 20:00etara eta hilaren 7an 13:30etik aurrera.
■ **Villabona.** 1997 urtean jaiotako mutilak (alebinak) hilaren 8an 19:00etan Arratzaingo futbol ze-

laira joateko deituta daude entrenamendu arroparekin, Billabona K.E.ko futbol talde berria osatzeko.
■ **Zizurkil.** Elizpe jubilatuek Elbarrenako jaietan, irailaren 9an, antolatuta duen bazkarirako txartelak salgai daude elkartearen.

Zinema

■ **Tolosa.** *Tropa de elite* izango da gaur ikusgai, Zine Forum saioan, Leidorren, 19:15ean eta 21:45ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Urte askoan Haimar!

Gau eta egun tinko darraigun. Aurrera Bolie! Nagore ta Gari.